

*Astra Tour Ion Munduatek Iberiar penintsulan kotxez egin zuen bidai batean hasi zen. Ibilbidea aldez aurretik mapan aukeratu zituen herriei jarraituz antolatu zuen. Bidaiak itxura hartu zuen, eta ondoren bi pieza osatu zituen, bideo-instalazio bat eta performance bat. Herrien izenek artikulatu zuten bi piezen kontaketa eta hitzaren espazioa aktibatzen saiatu ziren.*

G E R A L D S I E G M U N D

## Hitz batek zer hartzen du barne?

*Astra Tour*, Ion Munduateren lan bat

Hitz batek zer hartzen du barne? Antzinako tragedia grekoaren garaiak geroztik, antzerkiak markoa eskaintzen dio subjektuak Bestearenganako duen mendekotasunari, hondamendi horri. Gatazka hori nabarmen uzten du elkarrizketa dramatikoaren edo antzerki lan bateko pertsonaien artean gertatzen den hizkuntza truke koherentearen eta antzezlearen gorputzaren artean gertatzen den bereizteak. Sofoklesen *Antigona* antzezlanean Polyneikesen gorpua lurperatzen uzten ez den bezala, gauzen ordena kultural eta sozialaren barruan dagokien lekua har dezan, gorputza bereizi egiten da hizkuntzatik. Aias-en oinazezko oihuak, ezin hizkuntzak adierazi eta eduki ezin ditzakeenak, beste adibide argigarri bat dira. Soberako gorputza den aldetik, hizkuntzaren arau eta erregulazioetatik haratago doa, baita komunikabide gisa duen funtzioetik haratago ere. Gorputzak berezko bizia hartzen du. Hizkuntzaren eta haren lege inter-subjektiboen barruan kokatuta egon arren, gorputzak, antzerkian, garrantzia galdu du. Uko egiten dio arazorik gabeko integratzeari, eta bere ahalmen dramatikoa bereizte horretatik datorkio, hain zuzen. Pentsa dezagun fartsa genero barruan zenbat eta zenbat gorputzek zeharkatzen duten agertokia ezkerrean edo eskuinera egin behar ote duten jakin gabe, nortasuna galduz doazenak koreografia gupidagabe baten abiadura zorabiagarrian. Antzokia beti izan da subjektuaren gorputzaren eta haren gainean agintzen duen hizkuntzaren arteko bereiztetik sortzen den hondamena kokatzen den leku bat.

Hitz batek zer hartzen du barne? Espazio oso bat, subjektuaren agertokia. *Astra Tour* bere lanean, Ion Munduate koreografo, dantzari eta performerrak guztiz hizkuntzaz osatuta dagoen mundu bat erakusten digu. Hizkuntza unibertso horren barruan bere gorputza sartzen du, bere jabearekin elkarreraginean jardun dezan. Karpa handi bat ikusten dugu zabalik agertokian, ospakizunetarako erabiltzen diren horietako bat. Aulki soil bat dago ezkerrean, eta atzeko oihalak pantaila funtzioa betetzen du, bertan diapositibak proiektatzeko. Ion Munduate bera arduratzen da diapositibak pasatzen joateaz. Agertokia erabateko iluntasunean murgilduta dagoela, lehen diapositiba agertzen da, "Espera" hitza idatzita daramana. Ion Munduate aulkian eserita dago, zain. "Luz" hitza agertzen denean, agertokiko argiak pizten dira. Jérôme



Bel-en *The Show Must Go On* lanean egindakoaren antzera, Munduatek mundu baten sorleku moduan irudikatzen du agertokia. Hurrengo berrogeita hamar minutuetan, zenbait errepide-txartel agertzen dira, herri izenekin. Toponimoak, Munduate bere Astra autoan iritsitako benetako herri espainiarren izenak, argibideak dira, Munduateren ekintzak gidatzen dituztenak. Herri bat eta ekintza bat atzean uzten dituen bakoitzean, txartela marra gorri batez urratzen da.

Hartara, agertokia berehala bihurtzen da kultur trukerako leku, eta hizkuntzaren mendean dagoela erakusten da. *Astra Tour* bidaia bat da, autoz Espainian barrena egindako bidaia baten ingurukoa, eta beste bidaia horren, bizitzaren, metafora bihurtzen da. Hitz bat agertzen da, eta hari lotutako irudikapen fisiko bat antzezten da. “Ser” hitza hamar aldiz baino gehiago agertzen da kanpadendaren atzealdean.

**Ion Munduate guztiz hizkuntzaz osatuta dagoen mundu bat erakusten digu.**



Estreinako aldian, Munduate zutik geratzen da besterik gabe, geldirik, eta lurrera erortzen da hitza urratzen denean. Ostera altxatzen da “Ser” hitza daraman diapositiba agertzen denean. Orain eskua bihotzean duela erori da. Harri astun bat darama sorbaldan, eta Munduate azpian hartu du. Lan egitea bezala, hitz egitea eta kantatzea bizitzaren parte dira, “Errealitatea”-ren bilaketa bezala; azken hau antzeztan du agertokitik irtenda, fikziorako leku den aldetik handik ihes eginda. Munduatek era guztietako keinutxo eta ekintzak aurkitzen ditu, izaerak irudikatzen dituztenak.

*La Compagnie* lanean, beste performer bat, Amaia Urra, sartzen da karparen atzealdetik. Ion Munduaterekin elkartzen da hark ohol batetik abiatuta egin duen zabuan. Amaiak ozen irakurtzen du moda aldizkari bat. Harremanetarako iragarkiak nahasi egiten dira edertasun aholkuekin eta behiala Lur planetaren gainean igeri espazioa arakatu zuen kosmonauta errusiar baten istorioarekin. Hitza, agertokian gorputz bat inguratzen duen espazioa bera, unibertso oso bihurtzen da bat-batean. Lurreko biziak barne hartzen ditu orobat “Amor” -elkar besarkatzen dute-, “Alegría” —dantzan hasten dira musika alai baten doinuari jarraiki—, eta azkenik “Adiós” eta “Salir”, argiak itzali ondoren. Antzezpen horrek irudikatzen zuen mundua bere amaierara iritsi da, hitzez hitz.

*Astra Touren*, antzokia topaleku bilakatzeko da, ez bakarrik performerren eta ikusleen arteko topaleku, baita hizkuntza, gorputza eta ekintza ere. Hartara, agertokia tarteko gune-edo bihurtzen da, zeinean subjektibotasuna kultur testuinguru baten barruan aztertzen baita. Munduatek hizkuntzan eta kulturaren txertatuta dagoen gauzaki moduan aurkezten du gorputza.

Piezarekin batera doan bideo instalazioan, Munduate ikusten dugu herriak zeharkatzen eta eguzkitakoak aldatzen, txartelek iradokitzen duten gaiaren arabera. Pantaila erdibituta dago, ordea. Haizetakoaren atzean ezarritako kamera batek aurrean dagoen errepidearen irudien barruan, beste irudi bat agertzen da. Irudi txikia atzeko eserlekutik dago hartuta, eta Munduateren garondoa erakusten du. Erretrobisore barruan bakarrik ikusten da haren aurpegia; hala sortzen da hirugarren



pantaila beste irudi baterako. Bata bestean islatzen diren irudi sorta horrek irudi barruan zer dagoen eta haren laukitik kanpo zer geratzen den ikustera eramaten du gure arreta. Bizitza moduan ikusten duguna enkoadre gailu batzuen emaitza bat dela erreparatzera. Antzerkia bezala. Irudiak bezala. Hitzak bezala. Hitz batek zer hartzen du barne? Gorputz bat eta bizitza oso bat. ❧

**Astra Touren, antzokia topaleku bilakatzen da, ez bakarrik performerren eta ikusleen arteko topaleku, baita hizkuntza, gorputza eta ekintzena ere.**

GERALD SIEGMUNDEk eskolak ematen ditu Giessen-eko Unibertsitateko Antzerki Ikasketa Aplikatuaren Departamentuan. 1995ez geroztik dantza eta performance kritikari *freelance* ibili da *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Ballettanz* eta *Dance Europe* egunkari-aldizkarietan. Gauza anitz argitaratu ditu gaur egungo dantzaz eta antzerki-performanceaz.

ION MUNDUATEk Donostia, Madril eta Parisen ikasi zuen dantza. 1994an Blanca Calvo koreografoa ezagutu zuten eta elkarrekin ibili ziren lanean 1997ra arte; horren emaitza ditugu *M M M M* (1995) eta *Sangre grande* (1996). 1998an Ángel Bados eta Txomin Badiolak Artelekun eman zuten tailerrean parte hartu zuten. Ondoren bere kasa hasi zen lanean; *Lucía con zeta* (1998), *Boj de largo* (2000) eta *Flyball* (2000) egin zituen eta Europako hainbat hiritan aurkeztu zituen. 2002ko irailean *Astra Tour* proiektua hasi zuen. Bi pieza dira: bideo instalazio bat eta performance bat. Bideoa 2003ko uztailean aurkeztu zuen Lausanako Arsenic arte eszenikoen zentroan, eta performancea 2004ko martxoan Frantziako Tolosako Garonne antzokian. 1998. urteaz geroztik Mugatxoan proiektua —Artelekurekin eta Serralves Fundazioarekin lankidetzan egindako tailer-programazioa— zuzentzen du Blanca Calvorekin batera.